

Euskal forma onomastiko baten proposamena pertsona izen historikoen azterketan oinarrituta

Irati Iciar

(Azkue Bibliotekako katalogatzailea)

Jaione Agirre

(Eusko Jaurlaritzaren bekaduna)

SARRERA

Deituren edo abizenen inguruan egin diren ikerketak ikusita, ezin da esan gutxi egin direnik¹. Baina, aipatu behar da egin diren horietan, gehienetan, guztiak ez esateagatik, ikerlariak abizenak zein hizkuntzatatik datozen aztertu (euskaratik ote datozen, latinetik, juduak diren...), edo esanahiaren arabera sailkatzeaz arduratu dira (pertsona izen batetik datozen, ezizen batetik, lanbide batetik, gehien jota, toponimo batean jatorria ote duen...).

Gure asmoa bestelakoa da. Oso gutxi dira izen horiek gaur egun egiten ditugun lanetan euskaraz nola idatzi behar diren esaten edo proposatzen digutenak. Bai ikerketa lan historikoak egiterakoan, bai testuinguru teknikoagoetan, adibidez biblioteka bateko katalogoko sarrera nagusiak sortzerakoan, pertsonaia historikoen izenak idazterakoan arazoak sortzen dira. Hego Euskal Herriko artxibo-dokumentazioa gaztelaniaz dago eta bibliografia gehiena ere. Badirudi gaztelaniazko formak finkatuta daudela baina, gure ustez, euskaraz ere formak finkatu beharra dago.

Horregatik, arazoak planteatu eta adibide bidez proposamen batzuk aurkezten saiatuko gara, batez ere Durangaldeko dokumentazio zaharrenaren (XV eta XVI. mendekoa) azterketan oinarrituz.

Honen guztiaren helburua eredu estandar eta normalizatu bat aurkezteko balio dezaketen parametroak ezartzea da, izenen historia aztertuz eta dokumentazioan agertzen diren forma ezberdinak ikusiz eta baloratuz. Horrela, historiari buruzko euskal testuak sortzeko tresna baliagarria lortuko dugu, beste arlo askotan ere erabilga-

¹ Dirudienez "deitura" hitza da egokiena "abizen" neologismoa asmatu aurretik bazenez —ikus Jose Luis Lizundia (1977) —, baina guk biak erabili ditugu artikulu honetan bigarrena *Hiztegi Batuan* ere agertzen denez 'personen deitura' gisara.

ria izango dena, adibidez, liburutegi bateko katalogoak egiterako orduan, non egileen izen pertsonalak agertzeko modua oso zorrozki dagoen arautua².

Ikerketa honetan erabili dugun dokumentazioa doktorego tesi baten oinarritzko materiala da. Material horrekin lan egiteko orduan hainbat arazo sortu dira ikerketa lana paperean gauzatzera, eta, horien artean, pertsonen izenak modu sistematikoan idatzi beharra izan denean. (Artxibo-dokumentu horietatik abiatuz euskal testuak idatzi nahi direnean – historiako testuak edota doktorego tesia bera, adibidez- arazo ugari sortzen da). Dokumentuetan izenen forma ezberdinak agertzen dira, pertsona bakar bati buruz jardutean ere; horrez gain, garaiko testuak gaztelaniaz daude eta euskaraz idatzi behar denean zalantzak sortzen dira. Durangaldeko Erdi Aroko dokumentazioa transkribatua eta argitaratua dago hein handi batean (askotan transkripzio historikoak izanagatik, forma paleografikoak errespetatzen dituzte). Horrek lana errazten du 1520. urtera arte, ikerketa sistematikoa izatea posible egin duena. Orduetik aurrera heldu zaigun dokumentazioa argitaratu gabe dago eta gehiena aztertu dugu 1600 urtera arte.

Izen historikoen normalizazioa ez da bakarrik ikerketa lanetarako beharrezkoa, beste zenbait arlotan ere ezinbestekoa da. Adibidez, liburutegi bateko katalogoa osatzera. Katalogazio arau zorrotzak jarraitu behar izaten dira pertsona izenak ematerakoan —lehenik deitura(k), gero izena—, baina arau hauek gaur egungo pertsona izenetan oinarrituta daude, zeinetan izen/abizen binomioa ondo finkatuta dauden³. Hala ere, kasu bereziak ere agertzen dira arauetan, adibidez: erlijio izenak (Bartolome Santa Teresa), jatorria adierazten duten izenak (Gonzalo de Berceo), santuen izenak (Inazio Loiolakoa, Santua) eta erregeen izenak forma zuzenean ematen dira, hau da, ez da izenaren ordena aldatzen. Euskara hutsean egindako katalogo batean pertsona izen historikoak euskaraz eman behar direnean, arazoak sortzen dira, zeren “Gonzalo de Berceo” espainieraz forma gardena da (Berceo herriko Gonzalo dela esan nahi du), baina nola eman behar dira izen horiek euskaraz?

Leku izena abizena al da? Noiz dauka leku izaera eta noiz lotzen zaio familiarri? Zein da izen hauen gaur eguneko euskarazko forma? Ordukoaren berdina izan behar al da? Eta abar.

Deituren sailkapena

Deituren jatorriaz eta Euskal Herrian egon diren hizkuntza eta kultura desberdinen nahasketaz artikulatu ugari idatzi dira eta luze joko luke hemen aipatzeak. Hizkuntza desberdinetako jatorridun abizenak daudela adierazi digute horietan, jatorri euskaldunekoak, latindarrekoak, frankoak, juduak... Baina guri dagokigunez, interesgarria da ikustea nola agertzen diren abizen horiek —zein formatan idatzita— eta zein esanahi duten.

Kasuistika oso desberdina dagoen arren, orokorrean pertsona baten izenean ageri diren “zatiak” honela bana daitezke: izena eta deitura (edo abizena). Deituretan lau mota ditugu: patronimikoa, ofizio izena, ezizena eta leku-izena. Hauek dira, gutxi

2 Besteak beste: *Anglo-American Cataloguing Rules* (1998): “Choice of name, 22.1. General Rule” ; *Documentation: Catalogage: Forme et structure des vedettes noms de personne ...* (1986): “1. Vedettes noms de personne: Recommendations Générales” ; *Reglas de Catalogación* (1995): “15.1.1. Elección del nombre”.

3 Katalogatzeko arauei buruz: Pruden Gartzia (2001) eta bibliografian aipatutako nazioarteko arauen erreferentziak.

gorabehera, ager daitezkeen aldagaiak. Normalean, gainera, ez dira edonola agertzen, baizik eta era edo formula jakin baten arabera adieraziak⁴:

Izena

Izena + Ofizioa

Ynigo, açiclador (XV. mende bukaera-XVI. mende hasiera)⁵

Pero, el çapatero (XV. mende bukaera-XVI. mende hasiera)⁶

Izena + Patronimikoa

Miri [sic.] Lopes, la tendera

Martin Micolas

Izena + Patronimikoa + Leku-izena

Maria Ynigues de Sarasua (XV. mende bukaera-XVI.

mende hasiera)⁷

Furtun Sanchez de Çirarroysta (XV. mende bukaera-XVI.

mende hasiera)⁸

Maria Ochoa de Mendaro (XV. mende bukaera-XVI. mende hasiera)⁹

Izena + Leku-izena

Martin de Castillo (XV. mende bukaera-XVI. mende hasiera)¹⁰

Martin de Vrrecha (XV. mende bukaera-XVI. mende hasiera)¹¹

Izena + Leku-izena + Leku-izena

Juan de Ortuguren de Berrio (San Agustin Etxebarria,

Elorrio, 1489)¹²

Juan de Berrio de Uria (San Agustin Etxebarria, Elorrio, 1489)¹³

Juan de Jauregui, del lugar (San Agustin Etxebarria, Elorrio, 1489)¹⁴

Izena + Ezizena (+ leku-izena)

Juan Balza (1483, Durangoko Tabira)¹⁵

Juancheto Velca (1555, Ziga, Nafarroa)¹⁶

Maria Quipuça (XV. mende bukaera-XVI. mende hasiera)¹⁷

Izenari buruz ez dugu orain hitz egingo, jakina denez, dakigunez pertsona bera identifikatzen du.

Deiturari dagokionez aurreko zerrendan ikusi den bezala mota desberdinetakoak daude. Ezizen bat deitura bihur daitekeela oso garbi dago eta dokumentuetan adibide asko daude: 1555ean Zigan «*Juancheto Aguerre, alias Juancheto Velca*» adibi-

4 Sailkapen hau beste egile batzuk egindakoan oinarritzen da, hala nola, Ricardo Cierbide (ikus bere artikuluak) eta leku-izena den abizenaren kasuan, *Euskal deituen...* (1998:22) honela azaltzen du: «Esan beharrik ez dago deitura hauen guztien jatorrian dauden toponimoen eta oikonimoen tokian tokiko ebakera zein den ikertu dela [...]». Geuk ere badugu horren adibiderik, zenbait kasutan pertsona bat izendatzean dokumentuetan bere izen--deiturak ematerakoan eta ondoren nongo auzokide zen eta nongoa zen jartzerakoan (oso formula arrunta zena), honela baitator: «Juan Peres d'Elgueta e Pero de / Arançaeta, del lugar, e Pero de Ortueta, vecinos de la dicha villa d'Elorrio» —El. U. A., 234. karpeta, 2909. leg. (6.10) (Pedro Ibañez Esteibarkoak 1519/05/28an ateratako kopia)—, eta honelako beste adibide ugari.

5 D.U.A.H., 2. armairua (arm.), 7 (2). legajoa (leg.), 134. zenbakia (zenb.).

6 Idem.

7 Idem.

8 Idem.

9 Idem.

10 Idem.

11 Idem.

12 El. U. A., 339. karpeta, 4213. leg.

13 Idem.

14 Idem.

15 D. U. A. H. 2. arm., 7 (1). leg., 45. zenb.

16 Patxi Salaberriek (2000) jasotako adibidea (argitaragabea).

17 Idem.

dez¹⁸ eta honen parekoa da «*Juan Balza*» 1483ko maiatzean Durangoko Tabirako hiri-bilduaren Barrenkalen bizi zena¹⁹. Berdin gertatzen da ofizioarekin, kasu batzuetan dokumentazioan ez dagoelarik oso garbi izenaren ondoren datorrena ofizioa den, deitura, ofizioaren izena deitura bihurtua edo biak batera, goian idatzi ditugun adibideetan ageri den moduan.

Patronimikoari dagokionez —hots, izenaren ostean ageri ohi den deitura eta pertsona izen batean oinarritua dena—, normalean (beti ez esateagatik, zalantzazko salbuespenik bai baitago) aitaren²⁰ izenetik eratorria da eta horregatik deitu ohi zaio patronimikoa. Bi eratan ageri zaigu adibideetan ikusi denez, izenaren ostean izen soil bat bezala (hau frankoen artean izaten zen ohizkoena, Nafarroako azterlanetan ikusi denez aipatuko dugun bigarrena nafarren kasuan agertzen zelarik²¹) edo, bigarren eran, izen batetik eratorria zena, “-(e)z” amaitua zeukan formaz —eta bukaera berdinaren beste aldagaiak ahaztu gabe, noski—. Honen adibide anitz eman daitezke; horra gutxi batzuk: «*Pero Garcez, fijo de don Garcia Ezquerria*», «*Sancho Lopeytz, fillo de Lope Guarçeytz de Arleta*» (Iratxe 1288)²² eta Bizkaiari dagokionez aurrerago azalduko ditugun zenbait familiatan ikusten da epe motz batean egin diegun familia-zuhaitzetan.

Azkenik leku-izena dator, toponimo²³ edo oikonimo batean oinarritzen baita azken deitura mota hau, Patxi Salaberriaren hitzetan «patronimikoa ez ezik herri izena ere (orobat sortetxea eta ibarra) erabiltzen dira identifikatzailetzat» eta horren zenbait adibide ematen ditu: «*Garcia Semenitz d’Assiayn*», «*Lope Guarçeytz de Arleta*», «*Ferrant Periz d’Opacu*»²⁴ eta Durangoko merindadetik hautatu ditugu ba-tzuk: «*Maria Ynigues de Sarasua*» (XV. mende bukaera-XVI. mende hasiera)²⁵, «*Furtun Sanchez de Çirarroysta*» (XV. mende bukaera-XVI. mende hasiera)²⁶, «*Maria Ochoa de Mendaro*» (XV. mende bukaera-XVI. mende hasiera)²⁷; «*Martin de Castillo*» (XV. mende bukaera-XVI. mende hasiera)²⁸, «*Martin de Vrrecha*» (XV. mende bukaera-XVI. mende hasiera)²⁹, «*Juan de Ortuguren de Berrio*» (San Agustin Etxebarria, Elorrio, 1489)³⁰, «*Juan de Berrio de Vria*» (San Agustin Etxebarria, Elorrio, 1489)³¹, «*Juan de Jabregui, del logar*» (San Agustin Etxebarria, Elorrio, 1489)³². Kasu haue-tan ikusten da gaztelaniazko “de” partikularen ostean doana leku-izena dela, normalean mikrotoponimo bat (etxe baten izena, gaur egun agian auzo bihurtua; adibidez, *Orozqueta*, *Berrio*, *Igurria*, *Miota*, etab.³³). Badira oso kasu argigarriak ere honen inguruan, «*Juango de Çarauz*»³⁴ edo «*Pero de Arratia*»³⁵ -ren kasuan, segururenik, pert-

18 Patxi Salaberri (2000)

19 D. U.A. H. 2. arm., 7 (1). leg., 45. zenb.

20 Hurrengo atalean guk aztertutako deitura motaren bilakaera aztertzean azalduko dugu zergatik doan hemen komilla tipografikoen artean.

21 Ricardo Cierbide (1995: 214)

22 Patxi Salaberri (2000)

23 Leku edo etxearen izenean, beraz.

24 Patxi Salaberri (2000)

25 D. U.A. H. 2. arm., 7 (1). leg., 45. zenb.

26 Idem.

27 Idem.

28 Idem.

29 Idem.

30 El. U. A., 339. karpeta, 4213. leg.

31 Idem.

32 Idem.

33 Amaitezina izango zen zerrenda bat egin liteke dokumentuetan deituratzat ageri diren Durango aldeko leku-izenekin bakarrik. Adibide bakanak emateak zentzu gehiegirik ez duenez ikus argitaratutako dokumentazioak dauzkan zerrenda onomastikoak: C. Hidalgo de Cisneros (1988) eta C. Hidalgo de Cisneros (1989).

34 D.U.A.H., 2. arm., 7 (1). leg., 100. zenb.-n ageri zaigu izendatuta 1512an bildutako gerrarako gai diren gizonen artean.

35 D.U.A.H., 2. arm., 7 (2). leg., 108. zenb.ko dokumentuan 1514koak uste diren suen kontaktetan datorrena.

sona hauek nondik zetozen dator zehaztuta deituran; ziur aski, hasieran, haien arbasoek beste deitura bat izango zutela jatorrizko ziren herrian, baina Durangora aldatu zirenean, bertako jendearentzat ez ziren adierazgarriak leku horiek (eta beraz deitura horiek) eta identifikatuko zituen beste leku baten izena eskuratu zuten, Zarautzetik zetorrenari Zarautz eta Arratiakoa zenari Arratia (badira Zamudio edo Iciar bezalako beste adibiderik, edo bestela hor dugu «*Juan de Iciar*» jatorri durangarreko kaligrafo famatua)³⁶.

Baina “Leku-izena” motaren inguruan beste gogamenik ere egin daiteke; aipatu ditugun «*Juan de Ortuguren de Berrio*», «*Juan de Berrio de Vria*», «*Juan de Jabregui, del logar*», «*Juan de Jabregui de Çubiabrre*» (San Agustin Etxebarria, Elorrio, 1489)³⁷ adibideak dokumentu berdinetik atera ditugu guztiak, ikusten denez; beste elizate batzuen dokumentazioan agertutako beste kasu askotan ikusi den bezala, bertako biztanle batzuek bi leku-izendun abizenak dituzte. Seguruenik lehena da hasieran zeukatena, baina etxe/auzo berrira aldatzean, zehaztu beharra zegoen han bizi zenaz ari zirela eta, beraz, hangoa zela (honela, Joan delakoa Ortugurengoa zen jatorriz, edo bere familia hango jatorrikoa zen, baina Berriora bizitzera joanda, Berriokoa zela zehaztu beharra zegoen Elorrioren dokumentua izenpetzean, Ortugurenen edo beste nonbait agian beste Joan bat egongo baitzen Berriora bizitzera joan ez zena³⁸). Hirugarren adibidean esan nahi du, Joan Jauregikoa, Jauregi etxe/auzokoa zela, hortik “del lugar” adierazpena; hots, beste bi kasuetan bizilekua edo bigarren identifikatiboa idatzi beharra zegoen, deitura berria nolabait esateko — denborarekin Ortuguren galdu egingo du?, hori da zalantza—; baina bigarren kasuan ez dute “Juan de Jauregui de Jauregui” idazteko beharrik ikusten, ordez, “del lugar” idazten zen eta guztiek ulertzen zuten “de Jauregui” esan nahi zuela, (Zubiaurrekoa ere dagoen beste baten aurrean).

«*Maria Ochoa de Mendaro*» (XV. mende bukaera-XVI. mende hasiera)³⁹-ren adibideak bestelako gogoetak ere badakarzkigu. «*Ochoa*» hori patronimikoa dela esan dugu, baina izena gehitua inongo “-z” bukaerarik gabe (nolabaiteko “*Lopez*”-en pareko gisara jarritz); baina kasu batzuetan gauzak ez dira hain garbiak. Kasu hone-tan, bertan, argudia genezake «*Maria Ochoa*» osorik dela izena, eta deitura soilik «*de Mendaro*» dela; hau guztia posiblea da, baina, kurioski, gizon ugarik ere badute

36 Cierbidek, Dauzati jarraituz, esaten du leku-deitura hauek sarritan inmigranteek ezartzen zitzaizela, eta hiribilduek sorrera-garaian zeukaten erakargarritasunarekin lotzen du. A. Dauzat.ek aipatzen du leku-izena daramaten abizenak direla zaharrenak eta nobleziarekin erlaziozatu beharrekoak, baina dioen beste gauza bat lekuzko deitura hauek inmi-grante direnei ezartzen zaiela eta horrekin ados dago R. Cierbide eta horregatik jasotzen du iritzia hori, hiribilduen sorrerarekin hauek sortutako erakargarritasunak eramandako jendea zetorren lekuaren izenarekin identifikatzen zela, ikus R. Cierbide (1995: 213-215, 222, 46. oharra). Esan behar da, kurioski, P. Oyhamburu-k ere jasotzen duela fran-tsesezko “d(e)” formak ere lekua adierazten duela etxea edo, baina, aldiz, “-ko” ez duela identifikatzen lekuzkoarekin hasiera batean, eta nahasten du diminutiboarekin patronimikoaren ezaugarri dela esanez, honela dio: «Sin embargo, no hay entre nosotros prefijos que designen la descendencia [...] aunque el sufijo “...ko” se haya pegado a veces al apellido paterno, por ejemplo “Otsoko, Baratzeko, Martinko” (se le puede confundir con el diminutivo “...ko”) [sic.]», baina gero «En todo caso, en Euskadi el nombre de la casa originó el nombre de familia, mientras que en el lado fran-cés este último comenzó a distinguirse del primero a partir de la Revolución. Sin embargo, aun en la actualidad, los moradores de una aldea son más conocidos por el nombre de su casa que por el del estado civil. Una incidencia de este antiguo uso es la abundancia en el norte de apellidos que comienzan por “d” (Duhart, Dolhats, Darizcuren, Doyhenart), lo cual corresponde a “de (la casa) Uharte”, “de (la casa) Olatz”, “de (la casa) Arizkuren”, “de (la casa) Oiñenartea” ikus P. Oyhamburu (1991:89) , baina “-ko/-go” atzizkia ari denean argi bereizten ditu pertsona izene-kin diminutiboa dela eta bizigabeekin leku-izena adierazteko euskarazko deituretan jartzen den forma dela: «Izen zaharretan bazagon ere “ko” horren emaiteko ohidura, frantsesak eta gaztelarak “de” emaiten duten bezala, eta atxe-maiten ziren “Garateko” (de Garate) [...]», P. Oyhamburu (1991:109).

37 El. U. A., 339. karpeta, 4213. leg

38 Kontuan izan behar dugu, nola ez, zenbat errepikatzen diren izen berdinak populazioaren barruan, honela gizonen ize-nak ikusita, gehienak Joan eta Martin ziren eta nahasmena izugarria izango zen (zer esanik ez orain, gainera doku-mentazioa oso partzialki iritsi zaigula); ondorioz, pertsonak deiturak bereizteko balio zuen.

39 Idem.

"Otxoa" hori beraien izen-deituretan, eta, badirudi, ez dela ohikoa bi izen izatea eta bai bi deitura; hala ere, ustez patronimiko argiagoak direnekin ere sortzen dira zalantzak, izen bezala agertzen baitira (ala kasu horietan izena galdu egin da?)⁴⁰, honen adibidea dugu XVI. mende bukaeran Orioko dokumentazioan jasotzen den «Martinez de Hechaniz»-en kasua, dirudienez bere izena da "Martinez", aurretik ezer ez daramalako⁴¹. Zenbait kasu bereziak ere badira bi leku-izen elkartutako abizenak sortu direnak, bi etxe elkartu direlako edo: Iurreta-Uria⁴², adibidez.

Artikulu honetan kasuistika osoa gogoan izan arren, soilik mota bateko deiturak euskaraz nola idatzi behar direla proposatuko dugu, eta ez zailtasun gutxien sor dezakeena: "Izena (+ Patronimikoa) + Leku-izena". Dokumentazioan agertzen den forma eta gure proposamena —patronimikoak sor dezakeen "-z" / "-tz" zalantza eta bestelako arazo ortografiko zuzenak albo utzita⁴³— "de" + leku-izena nola eman argitzen saiatuko gara. Gainera, ikusten denez, gizonen izen-deiturez arduratu gara batez ere emakumeen kasua nahiko aldatzen baita (etorkizuneko lanetarako utziko dugu), normalean ez dutelako patronimikorik hartzen⁴⁴.

Izena + Patronimikoa + leku-izena motako deiturak

Geuk aztertuko dugun deitura mota horrek ez zuen historian zehar zurrun jarraitu. Hori argiago ikusteko Simancaseko artxibategian funts egokiak aztertu ditugu⁴⁵, zeintzuetan erregeak emandako mesedeen ondoregotzak aztertuta, nolabaiteko genealogia motzak egin daitezkeen XV. mendearen azken laurdenaren eta XVI. mendearen lehen laurdenaren artean gutxienez. Hauexek dira aukeratutakoak:

Ochoa Lopez de Aranzabal

|
Juan Lopez de Berriz (1465, 1475, 1496†)

|
Ochoa Lopez de Berriz (1496, 1497)

|
(alaba) + Andres Lopez de Gamboa (1519, 1520, 1523-1526)

|
Juan Lopez de Gamboa y Berriz (1544)⁴⁶

40 Ikus, adibidez, «senior Sanz Garceiz in Exauri», 1086an datorrena izendatuta Leireko Bezerro Zaharrean, R. Cierbide (1978), non badirudien "Sanz" ez dela patronimikoa, izena baizik.

41 Alejandro Ezcurdia (1978).

42 1498an «Juan Abad de Yurretavria» ageri da D. U. A. H. 2. arm., 7 (1). leg., 67. zenb.; gainera honi buruz esan behar da, apaiz ziren gehienek patronimikoaren lekuan "abad" hitza zeramatela deituran; nolabaiteko profesio izena-edo izango da, baina ondoren zetorren lekuzko hitzak zer esan nahi zuen? Jaiolekua? Apaiz bihurtu zenekoa edo lehen meza eman zuenekoa? Bere lehen destino garrantzitsua? Argi duguna hau Durangon bizita, bizilekua ez dela zertan izan.

43 Patxi Salaberri (2000). Ez da gure lan honen helburua ortografia kontuak edo "Mujika" ala "Muxika" den forma egokiena erabakitzea. Hala ere, esan dezagun badirudiela, ikusi dugunagatik, Bizkaia aldean, behintzat Durangoko merindadeari dagokionez, "-z" bukaera izaten dutela patronimikoez eta ez "-tz", behintzat, eta gutxienez, XV. mendetik aurrera, baina ezin dezakegu askorik esan horren inguruan. Ez da ahaztu behar ezta ere, beste hizkuntzek ere normalizazio eta aldaketa neak izan dituztela deituren idazkeraz. Honez gain badira denborarekin aztertu beharreko beste gertaera batzuk, eta horien artean ez genuke utzi nahi aipatu gabe, historian zehar literalki itzuli izan diren abizenen kasuak, euskaraz bazekien eskribauak eginak Henrike Knörr-ek jasotzen duen bezala Euskal deituren izendegiari egindako "Hitzazurrea"-n (1998:11-13); guk ere ikusi ditugu horrelako adibiderik, Durangoko merindadeko auzokidea den «Martin Martínez de Castillo»-ren kasuan gertatzen den bezala —D. U. A. H., 2. arm., 7 (1). leg., 42. zenb. eta 7. leg., 1 (3). zenb.—, "Gaztelu" izeneko toponimorik ez baita falta Durangoko merindadean garai hartan, edo «Maria Cubico e Peydro de la Puente, su marido», Koldo Mitxelena (1989:21).

44 Salbuespenak badira: «Maria Ferrandiz, ma muiller, filla de don Ferrant Periz d'Opacu» (Etxabarri, 1304), Patxi Salaberri (2000).

45 Tierras y Cartas vizcainas" batez ere.

46 A.G.S. Escribanía Mayor de Rentas, Tierras y Cartas Vizcaínas, 1. leg., 74, 183 eta 184. orr.; 2. leg., 37-39. eta 135. orr.; 3. leg., 124. eta 125. eta 383. orr.; 4. leg., 167 eta 168 eta 312. orr.

Martin Sanchez de Marzan
 |
 Sancho de Leiva (1490†)
 |
 Juan (Sanchez) de Marzana (de Madariaga) (1490, 1525†)
 |
 Sancho Martinez de Marzana (1535†)⁴⁷

Ochoa Martinez de Olaeta
 |
 Pedro Ortiz de Olaeta (1500†)⁴⁸
 |
 Ochoa Martinez de Olaeta (1513†)
 |
 Pedro Ortiz de Olaeta⁴⁹

Ikusten denez garai hori aldaketa une garrantzitsu bat da abizenen izendapenean. Erdi Aroan, semeei izen-deiturak jartzean, izenaren ondoren, aitarenean oinarritutako patronimikoa jarri ohi zen eta izen gisara aitonaren izena, honela, Erdi Aroan hain ezagunak zaizkigun txandaketak sortuz (goiko zuhaitzetan "Sancho de Leiva" eta "Juan Sanchez de Marzana"-rekin ikusten dena, nahiz eta jada sistema ez den perfektua).

Badirudi, Durangoko dokumentazioa aztertu ondoren ikusi dugunagatik, XV. mendea bukatzen doan heinean familietan patronimikoa fosilduz doala eta, honela, bereziki leku-izena deitu dugun deiturarekin batera igarotzen da hurrengo belaunaldira —batzuetan izenarekin berarekin batera ere— (goiko adibideetan, "Juan Lopez de Berriz" eta "Ochoa Lopez de Berriz"-en kasuan ageri da argi, semea ez baita "Ibañez" aurretik azaldutako sisteman izan beharko litzatekeen bezala).

Hori dela eta aipatu dugun abizenaren errepikapena gertatzeaz gain (eta izena modaren edo arbaso ezagun batena jartzen delarik, nahiz aita edo aitona ez izan), zuhaitzetan beste bi eratako errepikapen motak ditugu: batzuetan aitonaren izen-deiturak daramatza bilobak ("Ochoa Martinez de Olaeta" eta "Pedro Martinez de Olaeta"-ren familian ikusten den bezala), besteetan, aitaren izen-deiturak jasotzen ditu (adibidez, 1489an hil zen "Fernando de Zaldibar" eta haren seme "Fernando de Zaldibar"ekin bezala⁵⁰), dokumentazioa ulertzeko erabat nahasgarria dena kasu bietan askotan, gaur egundik irakurtzen dugunontzat (batez ere bigarren kasuan, eta pertsonaien heriotz daten erreferentziarik ez badugu). Garai hartako gizartean honek garrantzi handia zeukan, heredentziaren eta ondoregotzaren oinordekoak izen-deiturak heredatzen baitzituen jabegoekin batera; horretarako arazoak desberdinak izan daitezke: izen onaren jarraipena (hots, prestigioarena), autoritatearena, jabegoen ziurtagiriek balioa izaten jarraitzea, etab. Hor ditugu goiko adibideak (Olaetakoena,

47 A.G.S. Escribanía Mayor de Rentas, Tierras y Cartas Vizcaínas, 1. leg., 49 eta 235-237. orr.; 2. leg., 415 eta 479. orr.; 3. leg., 110-114. eta 446. orr.; 4. leg. 183. eta 319. orr.

48 A.G.S. Escribanía Mayor de Rentas, Tierras y Cartas Vizcaínas, 2. leg., 437. fol.; 3. leg., 398. fol.

49 A.G.S. Escribanía Mayor de Rentas, Tierras y Cartas Vizcaínas, 3. leg., 45. or.

50 A.G.S. Escribanía Mayor de Rentas, Tierras y Cartas Vizcaínas, 3. leg., 45. or.

kasu), baina baita Lope García Salazarren kasua, zeinetan “Lope García” arbaso famatuaren izena ikusten den historian zehar errepikatzen dela familia horretan⁵¹.

Adibideetan beste bi fenomeno ere ikusten dira, nola patronimikoa ez dela beti ageri, nahiz eta benetan beste dokumentu batzuetan agertu. Inoiz badirudi, aita-seelek izen bera dutenean, bietako bat patronimiko gabe izendatua dela, nolabait bereizia izateko⁵² eta «*el mayor en dias*» eta «*el menor en dias*» formula ere erabiltzen da (adibidez, «*Ochoa Vrtys de Olea, el mayor en dias*» edo «*Pedro Saez de Bedia, el menor en dias*»⁵³ eta «*Pedro de Uribe, el mayor en dias*»⁵⁴). Patronimikoa esan dugunez ez da agertzen beti forma honetan, Patxi Salaberriren hitzetan «Jakina, patronimikorik gabeko aldaerak ere ohikoak ziren, identifikatzaile horiek, toki izengoitia bezala, kendu-utzizkoak baitziren»⁵⁵.

Azken fenomenoaren amaren abizenaren agerpena da, XVI. mendea aurrera doan heinean argiago egiten dena Durangoko dokumentazioan, batez ere bere familia ere garrantzitsua bazen eta etxearen jabetza lortzen bazen, “y” baten bidez lotzen zen aitarengandik jasotako leku-izen erako deiturari (hemen dugun adibidea oso goiztarra da, «*Juan Lopez de Gamboa y Berriz*»-ena, alegia). Egia da, zenbait kasutan maiorazgoak osatzean behartzen zela aukeraketa egitera eta beraz, oinordeko izateko abizena hartu beharra zegoela, bereziki semerik ezean alaben bidez pasatzen zenean ilobei (mutilei, jakina) heredentzia; aitarengandik ere maiorazgoa izanez gero, aukera egin behar zuen bi deituren eta maiorazgoen artean eta hurrengo anaia nahi ez zuena; oso kasu argia dago 1569an fundatzen den Ibarra familiaren maiorazgoan Eibarko jatorrikoak zirenak, baina dokumentua Durangon gordetzen delarik⁵⁵. Emakumeen kasuetan ez da arraroa izaten amaren abizena jasotzea (bigarren semeetan gertatzen den moduan batzuetan), edo kasu batzuetan senarrarena ere (inoiz bere amaginarrez nahasketak sor ditzakeena)⁵⁶.

Erabilitako artxibo-dokumentazioa Durangoko merindadekoa da eta berari buruzkoa, baina beste zenbait egilek erabilitakoarekin pareka daiteke; honela Ricardo Cierbide-k Iruñeako Navarrieriako, San Zernin eta San Nikolas-eko burgoetako XII eta XIV. mendeetako dokumentuetako antroponimia aztertzean, agertzen diren deitura gehienek izena (+ patronimikoa) + leku-izena egitura daukate⁵⁷ eta berdin gertatzen da Leireko Bezerro Zaharreko dokumentazioan ageri direnak⁵⁸, etab.

Esan behar da, mota honetako arazoak ez direla soilik euskaraz gertatzen eta horren adibide dugu, gaztelaniaren lehen gramatikaren egilearen kasua, Nebrijarena, alegia. Jaiotzez «*Antonio Martínez de Cala*» edo «*Antonio Martínez de Jarava*» edo eta «*Antonio Martínez de Cala y Jarava*» zen, Lebrijan jaio zen (Sevillan), eta horregatik gaztelaniaz «*Antonio de Lebrixa*» idatzi zuen bere deitura eta latinez «*Elius Antonius Nebrissensis*» (Lebrija erromatar garaiko Nebrissa-rekin berdindu ohi zelako)⁵⁹.

51 Eta dirudinez, kasu horretan gainera bi izen dira eta batera doaz. Honela dakar Aguirre Gandarias-ek, Erdi Aroko idazle famatuak “Lope” izena bakarrrik erabili zuen ezkondu zen arte, orduan (eta San Martin-eko dorretxearen oinordeko izateko esperantza zuela), “Lope García” izena erabiltzen hasten da, bere arbaso famatu baten oroimenez. Sabino Aguirre Gandarias (1994).

52 Honen adibide bat dugu “Juan de Cerarruista” semeak “Juan Sanchez de Cerarreista” aitaren errege-mesede bat eskuratzean 1521ean, A.G.S. Escribanía Mayor de Rentas, Tierras y Cartas Vizcaínas, 4. leg., 299. or.

53 D. U. A. H. 2. arm., 7(2). leg., 111. zenb., 1514an ageri zaigu.

54 D. U. A. H., 4. Akta liburua 1580tik 1589ra, 139. at.-140. au. fol. 1585ean.

55 Patxi Salaberri (2000).

56 Hori da Katalina Garaikoaren kasua, Joan Basagurengoarekin ezkontzean «Catalina de Basaguren» bezala ezagutzen da eta bere senarraren amarekin nahas daiteke; Euskaltzaindia, Juan Carlos Guerra funtsa, dokumentu bilduma, 4360. zenb.

57 Adibideak ikusteko, ikus Ricardo Cierbide (1996) eta (1979:10-11).

58 Ricardo Cierbide (1978)

59 Pruden Gartzia (2001). Esan dezagun, badaezpada, 1444 aldera jaio zela eta 1522an hil zela.

Euskarazko kasuak eta adibideak

Orain arte deitura mota hau esplikatu edo idatzi denean forma desberdinak proposatu dira, gaur egunetik. Horiek aztertzen saiatu behar gara geurea proposatu aurretik.

Gaztelaniaz idatzitako lanetan, dokumentuetan agertu izan den bezala idatzi dira izen-deiturak, grafia gaur eguneko ortografiara berdinduta eta ia beste ikuturik eman gabe. Euskarazko dokumentu batzuetan ere ageri da erdal hurrenkera edo forma hori:

«*Domenjon de Andia*»

Sagarra eder gezatea
gerriyan ere ezpatea
Domenjon de Andia
Gipuzkoako erregia⁶⁰

«*Juan de Lazcano*»

Juan de Lazcano beltzarana.
Guipuzcoaco capitana,
Frantzez osteac jaquingo du
Ura Ondarribian zana.⁶¹

Euskarazko forma erdal dokumentazio historikoan ere agertu izan da, baina oso gutxitan eta gehienetan idatziz jasotako euskal ahozko tradizioan. Adibidez:

«*Nunnutto Miottaco*» (San Agustin Etxebarria, XI. mendea ustez)⁶²

«*Milia Lasturco*»

[...]

Arren, andra Milia Lastur-co,
Peru Garciac eguin deuscu laburto:
Eguin dau andra Maria Arraçolaco,
Ezcon bequio, bere idea dauco.

[...]

Arren, andra Milia Lastur-co,
Mandatariac eguin deust gaxtoto.

[...]

Mondr <a> goeri artu deusat gorroto,
Guipuç andraoc artu ditu gaxtoto:
Iturrioc calean andra Maria Balda-co,
Arte calean andra Ojanda Gabiola-co,
Errebalean andra Milia Lastur-co⁶³.

«*Peru Abendañoco*»

Yzarragati goia elcian joeala
Jaun Peru Abendañococ esala:
Oñetaco lurrau jauil <t> ycara,
Gorpuceco lau aragioc berala⁶⁴

60 XV. mendeko pertsonaia, gipuzkoako junteroa eta Joan II.a Gaztelakoaren eta Errege-Erregina Katolikoaren zerbitzaria izateaz gain Eduardo IV.a Ingalaterrakoarena ere izan zena.

61 "Juan de Lazcano", Joseba Lakarra (et al.) (1983:27).

62 El. U. A. 340. karpeta, 42191. leg., 2au.-4au. fol. Dokumentu hau XVI. mendeko beste dokumentu batzuei lotua dago orri berdinetan eta XVI.eko bere kopia bati, ondorioz, XI. mendekoa izango ez balitz edo ez guztiz, XVI.ekoa dela esan genezake eta guri dagokigunez balioets dezakegu.

63 "Milia Lasturkoren eresiak", Joseba Lakarra (et al.) (1983:33-34).

64 "Aramaioko kanta", Joseba Lakarra (et al.) (1983: 21).

«*Salinasgoa*»
 Lelorilelo sara y leloa
 Bilbaon catigu dago Salinasgoa
 [...] ⁶⁵.

Salinasgoa Conde
 Guztien da Jabe
 Guipuzcoa herrian
 on guztien burua
 [...] ⁶⁶.

«*Aragueaco Petrica*» eta «*Castellaco Ioanicot*»
 In nomine Patrica,
 Aragueaco Petrica,
 Castellaco Ioanicot,
 equidac ipurdian pot ⁶⁷.

«*Diaz Arocoa*»
 Jaun Diaz Arocoa,
 Cal[...] andi Españacoa,
 Eçec eçer ecieguion,
 Eguian Jaunac baroa ⁶⁸.

Patronimikodun forma osoarekin: «*Eneco Arceiz Iriarteco*» (Artaxoa, 1110), «*Garcea Lopeiz Barabatai[n]go*» (1183), «*Garcia Yuainnes Guaraycoecheacoa*» (Gartzain, 1366), «*Pero Lopiz Baztango*» (Oteitza-Iguzkitzaibar, 1350) ⁶⁹.

Patronimikorik gabe: «*Anso Olacarizquetaco*» (XIII. mendean), «*Domeca Navaçco*» (XIII. mendea), «*Domicu Lapurdico*» (Gerendiain-Ultzama, XIII. mendea), «*Dota Ovanosco*» (Olatz-Galar), «*Garcia Çubirico*» (Ariztregi, XIII. mendea), «*Garcia Eulzco*» (Zufia, XIII. mendea) ⁷⁰.

Adibide ugari argitaratu dira Nafarroako dokumentazioa aztertu dutenen artean eta asko oso goiztarrak ikusi dugunez ⁷¹.

Jada, modernoagoak dira:

«*Urrutia*»
 [...]
 Mus d'Urrutiak
 zian baratü bai bidian.
 [...]
 Madama Urrutiak
 Hartü zitüen bidiak.
 [...] ⁷²

65 "Salinasgo kontea", Joseba Lakarra (et al.) (1983:28).

66 "Bretainako kantorea", Joseba Lakarra (et al.) (1983:28).

67 "Ioanikoteren kanta", Joseba Lakarra (et al.) (1983:27-28).

68 "Diego Lopez Harokoren eresia", Joseba Lakarra (et al.) (1983:35).

69 Patxi Salaberri (2000).

70 Patxi Salaberri (2000).

71 Ikus baita ere, Ricardo Cierbide (1992).

72 "Ahetzeko anderea", Joseba Lakarra (et al.) (1983:41).

«Bereterretxe»

[...]

Bereterretzek oheti

neskatuari ezteki:

Abil eta so egin ezan

gizonik denez ageri.

[...] ⁷³.

Bukatzeko, ez dezagun ahantz, Beñat Etxeparek bere burua izendatzeko darabilen forma:

Erregueren aduocatu vizezco eta nobleari virthute eta hon guciez complituyari bere iaun eta iabe Bernard Leheteri Bernard Echeppurecoac haren cerbitzari chipiac gogo honez goraynci baque eta ossagarri⁷⁴.

Gaur egungo idazleei dagokionez, oso gutxitan agertu da honen inguruko irizpide zehatzik (eta formulaturik gutxiago). Hauexek aztertuko ditugu jarraian.

Yon Etxaide Itharte-k *Gorrotoa Lege* bere liburuan egiten zuen proposamena: «Matxin Ganboako» forma zen eta abizen bikoitza izango zena «Matxin Ganboa Olasoko» (hots, hau izango zen "Martin de Gamboa y Olaso", alegia)⁷⁵.

Jon Bilbao-k bere lanean erabilitako irizpidea euskal deiturekin hiru mailatan bereizten zen: dokumentuaren deskribapena (baina ez egileak berak bere lanean jarritako bere izena), egile berberak dituen lanen zerrenda egiteko sarrera nagusi "erdinormalizatua" eta sarrera nagusien zerrenda, "birnormalizatua"⁷⁶. Baina, erdarazko forma mantentzen du beti⁷⁷.

La Gran Enciclopedia Vasca-k egiten duena oso antzekoa da, baina euskal grafia eskaintzen du kortxete artean, adibidez «DIAZ DE CERIO [ZERIO]»⁷⁸; horrez gain, abizenen etimologia ematen duenean kriterio bera erabiltzen du (erdal jatorrizko toponimoaren grafia), baina egile zehatzez ari denean egileak berak erabilia hobesten/jarraitzen duela dirudi, adibidez: «DIAZ DE MENDIBIL. Apellido vasco en Mendibil (Alava)», baina «DIAZ DE MENDIVIL, Anacleto»⁷⁹.

Jatorrizko dokumentuan «*Iuan Baptista de Alçola y Muncharaz (Beneficiado de) / Castillo, Merindad de Arratia, natural de la (villa de Tabira de) / Durango*» izeneko egileak 1638an gorazarreko abesti bat egin zion «*Domingo Lopez de Hegvia*» edo «*Domingo Hegico*»-ri eta Adolfo Arejita-k bildu zuen bere artikulu batean, bertan gaur egungo euskaraz «*Domingo Egiko*» proposatzen du, baina egilea «*Iuan*

73 "Bereterretxeren kantorea", Joseba Lakarra (et al.) (1983:79).

74 Bernart Etxepare, *Linguae Vasconum Primitiae*, Mensajero, Bilbo, 1980.

75 liburuaren "Pertsonaien zerrenda alfabetikoki", III-VI. orr. eta "Elaberri honetako Euskal izen Zaharrak" 9-11. orr. non izenez eta abizen patronimikoaz bere proposamenak azaltzen dituen (pena da, baina ez dio ezer lekuzkoaz, bere proposamen argia azaltzeko), ezta "Nondik eta Nola" liburua idazteko ideia nola izan zuen adieraztean edo bere "Oharrak" atalean, zeinetan beste hiztegiarekin batera, esamolde eta hitz ugari azaltzen dituen. Adibideei dagokionez "Pertsonaien zerrenda alfabetikoki" V. or. eta elaberriaren lehen kapituluaren hasieran 13. or. jasota daude, guztia in Yon Etxaide (1984); aldiz, "Domingo de Agirre" esateko hasieran dituen oroimenetan «Domingo Agirre» gisara dakar (7. or.) eta bukaerako "Nondik eta Nola" horretan «Domiku Agirre» (393. or.).

76 Ikus honen inguruan Pruden Gartzia (2001).

77. Bere sistematizazio lana, beraz, gaztelaniar egiten du, euskarazko forma ematea planteatu gabe, ikus Jon Bilbao eta Luis Moreno (1991).

78 La Gran Enciclopedia Vasca, Donostia, Auñamendi, 1966-1983, "Decli-Echats" alea, 243. or.

79 La Gran Enciclopedia Vasca, op. cit., "Decli-Echats" alea, 245. or.

Bautista de Açola y Muncharaz» eta «*Juan Bautista Alzola Muntzaraz*» bezala dakar⁸⁰.

Philippe Oyhamburu-k aipatzen du forma zaharretan bukaerako "-ko" gehitzen zela antzinako deitura zaharretan⁸¹, baina bere egungoak ematean ez du erabiltzen ez badago hitzean erdialdean txertatua edo "-koa" amaiera kasu zehatz baztuetan⁸².

Joseba Lakarra, Koldo Biguri eta Blanka Urgell-ek, Kristina Rico-ren laguntzaz ateratako *Euskal baladaren azterketa eta antologia* lanean erabaki praktikoko gisara kopla zaharren izenburuetan irizpide hau jasotzen dute: «*E.II. MARTIN BAÑEZ ARTAZUBIAGAKOREN ERESIA*» eta «*DIEGO LOPEZ HAROKOREN ERESIA*»⁸³.

Euskaltzaindiaren deitura izendegian, gaur egungo abizenentzat bada ere, eta ezin dugu ahaztu denborarekin aldaketak egon direla eta bilakaerak aldaketak sortu dituela, bi forma onartu ditu guk aztertutako deituren forma daukatenentzat: batetik gaztelaniar den bezala (grafia euskarara egokituz) eta bestea euskaldundua, edo Mikel Gorrotxategi-ren hitzetan «*bi hurrenkerak desberdin onartu dira: erdal hurrenkerak lehenbizi eta euskal jatorrikoa —Nafarroan ongi dokumentatua*⁸⁴— bigarrenik. Esaterako: *Díaz de Cerio* a *Díaz de Zerío* / *Díaz Zerioko*»⁸⁵ ageri zaigu proposaturik eta erabakirik, esan bezala, gaur egungo abizenentzat.

Patxi Salaberrik berak, aipatu dugun hitzaldian bere proposamena egin zuen, ikusita kanpoko hizkuntzak agiri ofizialetan zuten indarra, euskarazko usadioa edo hurrenkerak ez dela «zirrikitu»etatik baino antzematen eta ondorioz «uste dugu bai errege-erreginak izendatzerakoan, bai handiki eta kapareak izendatzeko, eta bai buruenik jende xehea aipatzeko orduan, eskubidea badugula gure bideak ibiltzeko, gure hurrenkerak eta moduak erabiltzeko. Honek erran nahi du, adibidez, Garcia Lopitz de Liçassoayn euskaraz izendatu beharra badugu Garzia Lopitz Lizasoaingo errateko zuzena badugula», beti ere kontuz ibili behar delarik gaur egungo formekin eta patronimikoari dagokionez, oraindik Araban eta Nafarroako Estellerrian oso ugari diren abizen konposatuak ematerakoan⁸⁶.

Arazo zehatz bat: Bibliotekako Katalogo estandarrik.

Izen historikoen normalizazioa euskararen normalizazio bidez ezinbestekoa da, alor arruntenetatik hasita (euskarazko testuliburuak) jarduera tekniko eta espezializatuertaraino; adibidez, liburutegi bateko katalogoa osatzeko.

Pertsona izenak ematerakoan katalogazio arau zorrotzak jarraitu behar izaten dira. Nazioartean erabiltzen diren katalogazio arauak oso antzekoak dira arlo honetan, herrialde bakoitzak bereak egokitu dituen arren, bere hizkuntza, kultura eta tradizio literariora⁸⁷.

80 Adolfo Arejita (1983:137-181),.

81 P. Oyhamburu (1991:109)

82 P. Oyhamburu (1991:1064-1076): «Garbeaskoa 1) garb(a) + (b)ez +ko +a: arto-lili, gaztain-lili be(her)eko (etxe)a» eta «Garteizgoieaskoaga "Garteiz" + goieaz + ko + aga: "Garteiz" gaineko (etxe) lekua».

83 op. cit., 35. or.

84 Ikusi dugun bezala Nafarroan ez ezik, beste lekuetan ere ageri dira adibideak (artikulu honen egileen oharra).

85 Euskal deituren ... (1998: 25)

86 Patxi Salaberri (2000).

87 Besteak beste: *Anglo-American Cataloguing Rules*: "Choice of name, 22.1. General Rule" (1998:381); *Documentation*: *Catalogage*: *Forme et structure des vedettes noms de personne ...*: "1. Vedettes noms de personne: *Recommandations Générales*" (1986:181) ; *Reglas de Catalogación*: "15.1.1. Elección del nombre" (1995:431)

Katalogazio-arau asko dago pertsona izenak nola eman behar diren zehazteko. Aipa dezagun, orohar, zer esaten duten:

Pertsona izenaren elementuen ordena aldatzen da, lehenik abizena (edo abizenak, pertsonak berak erabiltzen duenaren arabera), gero izena, koma batez berezita. Egileek beren bititza intelektualean zehar izen ezberdinak erabili izan dituztenez (adibidez, Luis / Koldo Mitxelena), forma ezagunena eta gaur egun erabiliena hautatzea gomendatzen da (kasu honetan badirudi Koldo nagusitu dela).

Besteak beste, ondoko irizpideak ere aipatzen dira: abizena gaur egungo grafian agertu beharko da; atzerriko pertsona izenak jatorrizko hizkuntzan edo jaioterriaren hizkuntzan; egilearen hautua errespetatu, batez ere, ezizenak (Txillardegi, Bernardo Atxaga, Agatha Christie, etab.).

Dena dela, kasu berezi asko dago, eta maiz izena forma zuzenean ipini behar da, adibidez:

- a) Santuen izenak: Inazio Loiolakoa, Antonio Maria Claret, Tomas Akinokoa, Teresa Avilakoa...
- b) Erlijio izenak: Bartolome Santa Teresarena, Juana Ines de la Cruz, Kandida Maria Jesusena, Roman Berakoa...
- c) Erregeak, Aita Santuak: Enrike III.a Nafarroako Errege, Pio X.a Aita Santua...⁸⁸
- d) Lekua edo jatorria adierazten duten izenak: Gonzalo de Berceo; Johannes Cremonensis, Petrus Lombardus, Petrus Blesensis, Leonardo da Vinci...

Nazioarteko arauok hain zorrotzak eta garbiak izanik, non sortzen dira arazoak? Komentatu dugu jada, herrialde ezberdinek beren beharretara egokitu izan dituztela arauok. Baina, Euskal Herriaren kasuan oraindik ez dira gure beharretara egokitu eta hor sortzen dira arazoak. Euskal Herriko hegoaldean gehien erabiltzen diren arauak Espainiako ministerioak emandakoak dira, hau da, espainieraz katalogatzeko arauak dira. Euskaraz katalogatzea erabaki duen bibliotekak hor aurkituko du oztopo handiena, arau horiek beste hizkuntza batean katalogatzeko diseinatuak daudela.

Baina, goazen adibideak ikustera, arazoak non eta nola agertzen diren ikusi eta irtenbideren bat aurkitzeko.

Lehen arazoa, abizenarena da. Lehen aipatu dugu pertsona izenaren lehen elementua abizena dela. Deitura alemanak alemanieraz uzten diren heinean, ingelesak ingelesez, fran-tsesak frantsesez, etab. euskal abizenak ere euskaraz eman beharko direla uste dugu⁸⁹. Bestalde, arazo ezaguna da euskararen normalizazio berantiarak euskal deituretan izandako eragina. Euskal deiturak orain gutxi arte gaztelania eta frantsesezko grafian idatziak izan dira, horrek dakartzan grafia arazoekin (gaztelaniak eta frantsesak grafia guztiz ezberdinak darabilte, ondorioz, euskal soinu batzuk ezin dira ondo errepresentatu erdaraz: *Elisamburu*, *Elissamboure*, *Elizanburu*...). Deituren normalizazioaren inguruan Euskaltzaindiak Euskal Deituren Izendegia (EDI) argitaratuta duenez, katalogatzerakoan euskal deiturak euskaraz emateko modua badugu. Baina ezin dira euskal grafian euskal abizen guztiak jarri, kontuan hartu eta ez ahaztekoa baita egilearen beraren jatorria, adibidez, *Julio Cortázar*, ez baitirudi logikoa kasu honetan *Kortazar* idaztea.

⁸⁸ Hemen gehien interesatzen zaiguna azken kasu hau da, leku izenak ematerako orduan sortzen bait dira arazo nagusiak. Santu izen, erlijio izen eta errege izenek kasuistika oso berezia adierazten dute eta ez ditugu hemen komentatu.

⁸⁹ Hemen ez gara euskal abizena zer den esplikatzen hasiko, Mitxelenaren hitzetan «Todos tenemos una idea bastante clara de lo que queremos decir al hablar de apellidos vascos, y aquí no vamos a usar esa designación en un sentido muy apartado de su acepción corriente», Koldo Mitxelena (1973:15).

Orain arte egile modernoen izenaren forma emateko irizpideak aipatu ditugu, egile modernoetan baitaude argien zein elementu den izena, zein abizena. Baina euskaraz katalogatzerakoan arazo handienak forma bereziekin aurkitzen dira. Espainiako katalogazio arauetan espainieraz emateko irizpideak ematen dira, euskaraz emateko orduan balio ez dutenak. Adibidez, lekua edo jatorria adierazten duten izenetan: “Gonzalo de Berceo” da arauetako adibide gardena, Berceo lekuko Gonzalo da, jatorria adierazten denez, ezin da alderantziz eman (“Berceo, Gonzalo de” jarriz gero, ezingo zen adierazi leku-izena dela). Orain bai, nola jarri behar da hori euskaraz? Nola da lekua edo jatorria adierazten duten izenen euskal forma? *Berceoko Gonzalo, Gonzalo Berceokoa...* Gainera, kontuan izan behar da ere, pertsonaia beraren jatorria, hau da, ez da leku-izen deitura guztien euskal forma bilatu behar, katalogazio arauetan egilearen hizkuntza ezetik herritasuna ere kontutan hartu behar dela esaten delarik⁹⁰. Hots, “Gonzalo de Berceo” gaztelaniaz, “Leonardo da Vinci” italieraz, “Alcuin of York” ingelesez, etab. Kasuak kasu: “Benjamin de Tudela” Erdi Aroko idazlearen gaztelaniazko izena da ezagun, baina Tuterakoa izanik, bere euskal izena bilatu behar-ko genuke: *Tuterako Benjamin, Benjamin Tuterako, Benjamin Tuterakoa?* Guk azken hau gomendatzen dugu⁹¹, ez bakarrik gaur egungo euskaldunentzat forma gardena delako, baita euskarazko forma dokumentatua delako, adibidez Xabier Kintanak egindako itzulpen batean⁹².

Badaude baita abizen eta leku izena nahasten duten pertsonaia izenak ere, adibidez, “Juan Huarte de San Juan” delakoa; Donibane Garazin jaiotako mediku eta zientzilaria honek “Iuan Huarte, natural de Sant Iuan del Pie del Puerto” sinatu zuen bere *Examen de ingenios para las ciencias* lana 1625ean. Abizena *Uharte* izanik “de San Juan” hori jatorria adierazteko erabiltzen zuen⁹³.

Euskaraz katalogatzerakoan nahiko buruhauste ematen duten beste pertsona izen batzuk erlijio izenak direlakoak dira. Erlijioan sartzean jasotzen duten izenak dira hauek, eta ordena erlijiosoaren arabera santu baten izena edota jaioterriaren izena hartu ohi da. Adibidez: *Bartolome de Santa Teresa*, euskal idazle famatua, bere benetakoa izena *Bartolome Madariaga Garate* izaki, karmeldarra egitean Santa Teresaren izena hartu zuen, beraz, nola jarri “de Santa Teresa” hori?⁹⁴ Edota, *Jorge de Riezu* kaputxinoak, izen hori jaso zuen Errezu herri nafarran jaio zelako. Jaioterria adierazten duten izenen kasuan argi gomendatzen dugu aurrez aipatutako “-koa” atzizkia, dokumentatutako forma delako eta, batez ere, gaur eguneko euskaldunentzat argia eta gardena delako. Beste horrenbeste esan daiteke santuen izenei buruz, santu izen asko leku-izenak dira (*Inazio Loiolakoa*⁹⁵, *Tomas Akinokoa*, *Antonio Paduakoa*), erlijio

90 Katalogazio arauetan ikus: AACR (1998): Choice of name, 22.1. ; AFNOR (1999): NF ZZ 44-061 1. Vedettes noms de personne: recommandations générales ; Reglas de Catalogación (1995): 15.1.1 Elección del nombre.

91 Ikusten den bezala, kasu askotan garrantzitsuagoa izan daiteke egilearen herritasuna darabilen hizkuntza baino: Benjamin Tuterakoa hebraieraz idazten zuen, Alcuin of York-ek latinez, baina beraien izenak herritasunaren arabera osatu ohi dira.

92 Ikus: Benjamin Tuterakoa: Sefer Masa’ot = Bidaien liburua = Libro de Viajes lanaren euskal itzulpena Xabier Kintanak egindakoa da, bertan egilearen izena euskaraz ematen da: “Benjamin Tuterakoa”.

93 Berriz ere Kintanari segituz *Joanes Uharte Donibanekoa* gomendatzen dugu; nazioartean *Juan Huarte* erabiltzen da, Estatu Batuetako Library of Congress-ean eta Frantziako Biblioteka Nazionaleko katalogoetan honela agertzen delarik. Ikus: <http://www.loc.gov> eta www.bnf.fr

94 Ez dugu gehiegi sakonduko gai hau lan honetan, batez ere, kasu oso bereziak direlako. Hala ere, aipatzekoa da (eta ziurrez hori da jarraitu beharreko bidea) “-(r)ena” atzizkiaren erabilera, hau da, “Bartolome Santa Teresarena” edota “Kandida Maria Jesusena” (Cándida Maria de Jesús). Badirudi, irizpide hori Kardaberazek erabili zuela (1882) eta gaur egunean egile batzuk ere erabiltzen dutela: Julen Urkiza, Luis Baraiazarra, etab.

95 Gure herriko santu famatuena izanik izena aukeratzekoan ere hainbat euskal forma aurkitzen dira: Inazio, Eneko, Ignazio, Inazio, Inaki, Inigo, Loiolako, Loiola’tar, Loiolakoa, etab. Gure uesteko katalogoaren trinkotasuna mantentzeko guk “-koa” forma aukeratu dugu, aipatutako arrazoiengatik eta “Inazio” hori baita euskaldunen artean aruntena. Aipatzekoa da biblioteka ezberdinek irizpide ezberdinak (arau egokituak) izaten dituztela pertsonaia berak izen ezberdina jaso dezakeelarik; San Inazioarena kasu argia da: Deutsche Bibliothek-en (Alemaniako biblioteka nazionala dena) pertsonaiaren jatorriaren irizpidea jarraituz “Ignacio de Loyola” forma aukeratu dute; Library of Congress-en berriz (EEBBko liburutegi nazionala) “Ignatius of Loyola”, forma ingelesa aukeratu dute, santuen izen guztien forma ingelesa jaso edo sortzen dutelarik.

izenak (*Juan de la Cruz*) edota beraien abizenak dira (*Antonio Maria Claret*, *Jean Baptiste de La Salle*). Kasu hauetan ere arazoak leku izenekin sortzen dira (Tomas Akinokoa, Akinoko Tomas, Tomas Akino). Guk hemen ere “-koa” forma gomendatzen dugu, aurrez aipatutako arrazoiengatik⁹⁶.

Hemen behin da berriz aipatzen dugu pertsona izen baten forma “aukeratu” egin behar dela eta, batzuetan, ez bakarrik aukeratu, baita “sortu” ere (bibliotekaren katalogazio arauen arabera sortu). Izan ere, katalogoa osatzerakoan eta pertsona izenak aukeratzeko arazoa ez da BENETAKO izena aurkitzea, pertsonaiaren “benetako” izena dela esatea, baizik eta, katalogo bibliografikorako forma EGOKIENA dela adierazten da, bibliotekak hartu dituen irizpideen arabera aukeratua. Kasu askotan, gaur egun oso arruntak diren izenak bere garaian auzitan egon ziren, besteak beste, Juan Sebastian Elkanoren kasua: XX. mende hasieran hainbat ikerketa argitaratu ziren, non, batzuk “benetako” abizena “el Cano” zela frogatzen zuten eta beste batzuk, aldiz, benetakoa “de Elcano” zela. Orduan hainbat zeresan eman zituen pertsonaiaren izena, gaur egun inor ez da planteatu ere egiten “Elkano” ez besterik izan daitekeenik⁹⁷.

Bukatzeko, azpimarratu nahi genuke atal honetan euskaraz katalogatzean agertu ohi diren arazoetako batzuk aipatzea izan dela gure asmoa, eta pertsonaia historikoaren izenen azkerketan oinarritutako nolabaiteko erantzuna ematen. Halaber, biblioteka katalogo baterako erabakiak oso baliagarriak izan daitezke, adibidez, euskal testu arruntak idazteko, baina ez modu automatikoan. Adibidez, eztabaida daiteke euskal testu batean “Alcuin of York” edo Alkuino Yorkekoa jarri behar den, baina barregarria litzateke “*Alcuino de York*” proposatzea.

Gure idazketa proposamena

Pruden Gartzia dioen bezala⁹⁸ «helburua ez da egilearen benetako deitura zein zen zehaztea (alegia, zein zen berak maiteen zuen grafia edo forma), katalogo bibliografiko bat antolatzea baizik». Antzerako baieztapena egin daiteke edozein euskal testutan agertu behar diren formei buruz: helburua azterlan historikoetan jarraitu ahal izateko forma bateratu bat agertzea da, ulermena ez nahasteko; hori bai, ahalik eta zentzuzkoena eta erabilgarriena.

Izen historiko zaharrak idazterakoan aurkitzen dugun oztopo nagusia leku-izena dela aipatu dugu. Euskal tradizio zaharrean eta dokumentu den forma gaztelaniazko eta frantseseko “de” partikula hori, “-ko” atzizkiaz ordezkaturik ageri dela ikusi dugu gehienetan eta izenaren ondoren (patronimikoaren ondoren, hau ere baldin badago), eta ikusi dugu baita ere orain arteko autore moderno batzuk ere forma hori hobetsi dutela. Baina guk uste dugu, forma zaharkitua dela eta dokumentazioan bertan ageri den “-koa” atzizkia gaur eguneko beharretara hobeki egokitzen dela. Besteak beste, gaur eguneko euskaldunentzat ulergarriagoa eta forma gardenagoa delako. Beraz, “Frai Juan Zumarragokoa”, “Lukas Lexarazukoa” edo “Otxoa Lopez

96 Azpimarratu nahi genuke izena ezartzeko orduan ez dagela irizpide absoluturik. Adibidez, arestian “Gonzalo de Berceo” edo “Alcuin of York” defenditu ditugu, baina oraingoan Tomas Akinokoa edo Antonio Paduakoa hautatu dugu, aipatu dugun bezala santu eta erlijio izenek guztiz kasuistika berezia agertzen dutelako. Kontuan hartu behar da bi kasu hauek euskal forma tradizionalak ondo dokumentatuak dituzte. Ikus: Reglas de Catalogación (1995): “15.1. B f) [...] Se escogerá la forma española para los santos, beatos, papas, emperadores...”, noski, euskaraz katalogatzen duen bibliotekaren kasuan “forma española” hori “euskal forma” bezela ulertu behar da.

97 Juan Sebastian Elkanoren abizenaren auzi inguruan ikus Serapio Mugica (1931). Beste horrenbeste pasatu zen ere: Joanes Leizarraga / Lizarraga / Liçarrague-ren abizenarekin.

98 Pruden Gartzia (2001).

99 Kasu honetan ez dugu ontzat ematen X. Kintanaren proposamena egindako itzulpen batzutan, nahiz eta ezaguna izan Unamunok berak inoiz edo beste “Miguel Unamunokoa” forma erabili zuela.

Berrizkoa” bezalako formak gomendatzen ditugu, behintzat XVI. mende bukaera arte, baina “-ko” soila guztiz baztertu gabe forma bereziki zaharretan eta ondo dokumentatuetan. Geroagoko pertsonaia modernoek kasuan, badirudi “-ko/de” hori dokumentazioan bertan galdu egiten dela (ikus adibidez, *Pedro Axular* edo *Joanes Leizarraga*, gaur egun horrela oso forma arruntak eta ezagunak direnak euskal idazleen artean) edo gordetzen denean noblezia kutsu bat eman nahi zaiola izen-deiturei gehitzen denean (batez ere XIX. mendean); adibidez “*Miguel de Unamuno*” *Miguel Unamuno* litzateke eta ez Miguel Unamunokoa⁹⁹. Hala ere, hau ez da automatikoki aplikatu behar, kasuak kasu begiratu behar baita, salbuespenak egon daitezkeelako.

Honela beste adibide batzuk gorago agertu ditugunak, honela proposatzen ditugu:

<i>Maria Ynigues de Sarasua</i>	---	Maria Iñigez Saratsukoa
<i>Furtun Sanchez de Çirarroysta</i>	---	Furtun Santxez Zirarroistakoa
<i>Maria Ochoa de Mendaro</i>	---	Maria Otxoa Mendarokoa
<i>Martin de Castillo</i>	---	Martin Gaztelukoa
<i>Martin de Vrrecha</i>	---	Martin Urretxakoa
<i>Juan de Ortuguren de Berrio</i>	---	Joan Ortuguren Berriokoa
<i>Juan de Berrio de Uria</i>	---	Joan Berrio Urikoa
<i>Juan de Jauregui, del lugar</i>	---	Joan (Jauregi) Jauregikoa ¹⁰⁰
<i>Juan Lopez de Gamboa y Berriz</i>	---	Joan Lopez Ganboa Berriz ¹⁰¹

Ondorioak

Laburbilduz, deituren inguruan egin diren ikerketak orokorrean gehiegi ez diren arren, gehienak abizenen jatorri etnografiko-linguistikoaz arduratu dira hizkuntzalari eta historialariak; hots, deitura edo abizen hori jatorri euskaldunekoa zen, latindar estratukoa, frankoa, okzitanoa, hebertarra... Eta azken aldian, eta gure hizkuntza paper ofizialelan agertzearen ondorioz, edo, nahi bada, hizkuntza normalizazio bate-rantz, abizenen idazkera zuzena bilatu da (hor Euskaltzaindiaren izendegia eta deitu-ren izendegia lanak), ortografiatz arduratuz, batik bat. Horretarako zegoen dokumentazio historikoa erabiltzen saiatu delarik baita ere, besteak beste.

Lan hauen garrantzia aipatzeko beharrik egon gabe, hala ere, lan asko dago egi-teko abizen hauek nola idatzi behar diren euskaraz agertzean¹⁰²(horren eredu da aipa-tu den abizen izendegiaren sarreran ageri dena 15-17. puntuetan Mikel Gorrotxategik esanda). Hor doa gure proposamena, geure lan arloek eta geuk egin beharreko lanak bilatzera behartu gaituena.

Horra, gure proposamena era labur batean eta beti ere beste proposamen ba-tzuekin kontrastagarria dena eta kritika beharrean dena: XVI. mende bukaerararte izen historikoei leku-izeneko deiturari “-koa” atzizkia gehitzea gomendatzen dugu eta handik aurrerakoei ezer ez jartzea, beti ere kasuak kasu eta salbuespenak salbuespen.

100 Kasu hauetan ikusi dugunez, lehen leku-izena fosildu egin da, nolabait, beste patronimikoeekin gertatu zen bezala, eta familia izena bihurtu kasu hauetan, beraz “-koa”, hots, lekua adierazten duen parte, bigarrena da eta horrek eraman behar du atzizkia, berdin Martin Ganboa *Olasokoa* edo *Lope Garcia Salazar Muñatoneskoa* bezalako kasuetan.

101 Edo *Joan Lopez Ganboakoa* eta *Berrizkoa*, aitaren eta amaren abizenak baitaramatza, horregatik kasu berezia da, baina azken forma hau nahasgarria denez eta batez ere XVI. mendeko bigarren erdialdetik aurrera ageri denez, forma modernoek grafian jartzea litzateke egokiena, inongo atzizkirik gabe.

102 Euskal deituren ... (1998:25)

ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

Iturri dokumentalak

Argitaratutakoak

- HIDALGO DE CISNEROS AMESTOY, C. (et al.) (1989). *Colección documental del Archivo Municipal de Durango*, Fuentes documentales medievales del País Vasco, 20, 21, 22 eta 23, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, J. (et al.) (1993). *Colección Documental de los Monasterios de Santo Domingo de Lequeitio (1289-1520) y Santa Ana de Elorrio (1480-1520)*, Fuentes documentales medievales del País Vasco, 46, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, J.(et al.) (1997). *Foguera-vecindario de las villas de Vizcaya de 1511*, Fuentes documentales medievales del País Vasco, 78, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, J. (et al.) (1997). *Foguera de las villas de Vizcaya de 1514*, Fuentes documentales medievales del País Vasco 79. zenb., Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- HIDALGO DE CISNEROS AMESTOY, C. (et al.) (1988); *Colección documental del Archivo Municipal de Elorrio (1013-1519)*, Fuentes Documentales Medievales, 16, Eusko Ikaskuntza, Donostia.

Iturri argitaragabeen artean bereziki begiratutakoak:

- D.U.A.H. Durangoko Udal Artxibategi Historikoa: *Documentos Antiguos* (1 - 7. leg.ak), Akta Liburuak eta Kontu Liburuak, Elizako Liburuak eta Iurretako Artxibategi Munizipala (Iu.U.A.) atalak.
- ENRÍQUEZ FERNÁNDEZ, J. (et al.) (1993/12). *Documentación del Archivo del Monasterio de San Antonio de Durango hasta 1520*. (Transkribatua eta argitaratugabea).
- Otx.U.A. Otxandioko Artxibategi Munizipala
- B.E.A.H. Bizkaiko Eliza Artxibategi Historikoa (Derio). Durangoko atala, elizako liburuak.
- B.F.A. Bizkaiko Foru Artxibategia: Bizkaiko Korreximenduaren atala (B.K.A.); Durangoko Korreximenduko tenentziaren atala (D.K.T.); Elorrioko (El.U.A.), Ermuako (Er.U.A.), Atxondon Axpeko Udal Artxibategia (Ax.U.A.) eta Arrazolako Udal Artxibategia (Ar.U.A.), Mañariako (Mñ.U.A.), Abadiñoako (Ab.A.M.), Mallabiako (Mll.U.A.), Zaldibarreko (Z.U.A.), eta Izurtzako (Iz.U.A.) Artxibategi Munizipal historikoak.
- B.A.H.P. Bizkaiko Artxibategi Historiko Probintziala: Protokolo notarialen atala.
- A.G.S. Archivo General de Simancas: Registro General del Sello (R.G.S.), Tierras y Cartas Vizcaínas atalak.
- A.R.Ch.Vall. Archivo de la Real Chancillería de Valladolid: Sala de Vizcaya-ko auziak.

Bibliografia

- AFNOR (1999). *Formation des bibliothécaires et documentalistes: normes pour l'épreuve de catalogue*, AFNOR, Paris.

- AGUIRRE GANDARIAS, Sabino (1994). *Lope Garcia de Salazar: el primer historiador de Bizkaia* (1399-1476), Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbo.
- ANGLO-American Cataloguing Rules (1998), Canadian Library Association [etab.]
- ARANBURU, Pello Joxe (et al.) (1999). *Jose Otxoa Arin (1672-1743). gipuzkera literarioaren aintzindari*, Goierriko Euskal Eskola, Lazkaoko Udala, Maizpide Euskaltegia, Lazkao.
- AREJITA, Adolfo (1983). "«Cancion Vyzcayna...» Domingo Egikori gorazarre kantua. XVII. mendeko poema", *Euskeraren Iker Atalak*, 2. zenb., 1983, 137-181. orr., Bilbo.
- BELTRÁN DE HEREDIA, Vicente (1932). *Francisco de Vitoria*, Labor, Bartzelona.
- BENJAMIN TUTERAKOA (1994). *Sefer Masa'ot = Bidaien liburua = Libro de Viajes*, Nafarroako Gobernu, Iruñea.
- BILBAO, Jon (1970-). *Eusko Bibliographia*, Auñamendi, Donostia.
- BILBAO, J.; MORENO, L. (1991). "Eusko Bilbiographia, pasado, presente y futuro", in *Liburutegi publikoak II-III ihardunaldiak, Donostia 1989-1990*, Gipuzkoako Bibliotekari eta Dokumentalisten Elkarte, Donostia.
- CIERBIDE, Ricardo (1978). "Índice completo de antropónimos citados en el Becerro Antiguo de Leyre" in *Fontes Linguae Vascomum*, X, 28. zenb., (Enero Abril 1978), 71-126. orr.
- _____ (1979). "Notas lexicográficas a los onomásticos románicos vascos citados en los registros fiscal y censal de Olite (1244-1264)", in *Estudios ofrecidos a Emilio Alarcos Llorach*, IV, Universidad de Oviedo, Oviedo.
- _____ (1992) "Onomástica medieval contrastada en la Navarra peninsular y continental (siglos XIV-XV)", in ARIZA; M. (arg.). *Actas del II Congreso Internacional de Historia de la Lengua Española. Sevilla 5-9 marzo de 1990*, Pabellón de España, Madrid.
- _____ (1995). "Onomástica personal de los francos de Estella", *Nouvelle Revue d'Onomastique*, 25-26. zenb., 209-222. orr.
- _____ (1996). "Onomástica personal de los vecinos de Pamplona (siglos XII-XIV)", *Nouvelle Revue d'Onomastique*, 27-28. zenb., 87-96. orr.
- _____ "Los nombres de familia de Álava según los censos fiscales de los siglos XVI al XVIII" (egileak emandako kopia).
- ENCICLOPEDIA General Ilustrada del País Vasco: diccionario* (1968-), Auñamendi, Donostia
- ETXAIDE, Yon (1984). *Gorrotoa Lege*, Elkar, Donostia.
- ETXEPARE, Bernart (1980). *Linguae Vasconum Primitiae*, Mensajero, Bilbo.
- EUSKAL deituren izendegia (1998), Euskaltzaindia, Bilbo
- EZCURDIA, Alejandro (1978). "Notas sobre el empleo del patronímico en Orio (Guipúzcoa) en los siglos XVI y XVII", *Euskera*, XXIII (2. aldia), 59-68.orr.
- GARTZIA, Pruden (2001). "Azkue Bilbiotekaren Katalogoa (ABK). Euskal Deituren Sarrera Nagusiez", *Euskera*, 45. zenb., 319-342. orr.
- GOYHENECHE, Eugène (1991). "Notas sobre la onomástica y la historia medieval en Iparralde." *I. Onomastika Jardunaldien agiriak. Toponimia*. Gasteiz 1986ko apirila. In *Onomasticon Vasconiae*, 4, 293-305. orr., Euskaltzaindia, Bilbo.
- IÑIGO, Andres (2001). "Izena eta izana", *Euskonews & Media*, 106. zenb., 2001/01/12-19. (www.euskonews.com)
- IRIGOIEN, Alfonso (1994). *Pertsona izenak euskaraz nola eman*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo.
- IRIGOYEN, A. eta CIERBIDE, R. (1991). "Vitoria-Gasteiz", in ZZ.EE., *Dictionnaire historique des noms de famille romans. Actes del III Col·loqui* (Barcelona, 19-21 juny 1989), Max Niemeyer, Tübingen.

- KARDABERAZ, Agustin (1882). *Ana veneragarri Josefa Sacramentu Guciz Santuarena ceritzanaren vicitza eta vertuteac*, Tolosa, Eusebio Lopezen moldiztegi.
- LAKARRA, J. (et al.) (1983). *Euskal Baladaren azterketa eta antologia*, Hordago, Donostia.
- LIZUNDIA, Jose Luis (1977). “-tar; -ko, -eneko izen-deituretan”, *Euskera*, XXII, 168--173. orr.
- MÚGICA, Serapio de (1931). *Elcano y no Cano*, 2. arg., Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- MITXELENA, Koldo (1989). *Apellidos Vascos*, 3. arg., Txertoa, Donostia.
- (1990). *Textos arcaicos vascos*, Anejos del ASJU, XI, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia.
- OMAEICHEVARRIA, Ignacio (1957). “Nombres propios y apellidos en Oñate. Consideraciones histórico-lingüísticas”, *Boletín de la Real Sociedad Vascongada de Amigos de País*, XIII. urtea, 2. koad., 115-137. orr.
- OYHAMBURU, Philippe (1991). *Euskal deituren hiztegia*, Hitzak, Ossas-Zuhare.
- REGLAS de catalogación: Edición refundida y revisada* (1995), Ministerio de Cultura, Dirección General del Libro, Archivos y Bibliotecas, Madril.
- SALABERRI, Patxi (2000). “Euskal Herriko onomastika arazoak eta irtenbideak”, *I. Historialari Euskaldunen Topaketetan* eskainitako hitzaldia (argitaragabea)¹⁰³.

¹⁰³Egileari bere lan argitaragabea utzi izana eskertu nahi diogu.